



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko azaroaren 11

28. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Foru Lege proposamena, eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldatak eta dietak jasotzea arautzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Félix Garrido Zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpromisoa har dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnostiko oso bat egin dezan Nafarroan ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko plan bat ezarri aurretik. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Gobernua premiatzen da giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan. Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tresna informatiko bat finantzatu eta gara dezan, toki korporazioek beren udal inbentarioak modu homogeneoan egin ahal ditzaten. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitzikio Abdullah Dermirbas politikari kurduari, pairatzen ari den egoera dela-eta, bere gaixotasunerako tratamendu egokia jaso ahal izan dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, ikus-entzunezko produkzioarako laguntzen banaketari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (13. or.).

- Galdera, frantsesezko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko nork ordainduko duen AHTa dela-eta Estatuko Gobernuak bere gain hartu duen gehiengo kostuaren eta benetako kostuaren arteko aldea, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Iruñeko Nabarrera kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusitako diren jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldata eta dietak jasotzea arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldata eta dietak jasotzea arautzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldata eta dietak jasotzea arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldata eta dietak jasotzea arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proposamen honek arautzen ditu halako esparru publiko, erakunde, erakundeetatik sortutako organo eta izaera publikoko entitateak non diru-konpentsazioak sortzen ahal baitira eginkizun bat betetzera dedikazio osoa eskaintzeagatik edo erakundeetako, enpresa publikoetako nahiz beste gisa bateko entitateetako zuzendaritza-kontseiluetara nahiz egituretara joateagatik.

Orobat ezartzen du zeintzuk izan behar duten erakunde eta entitate horiek esleitzen dituzketen gehieneko zenbatekoak, organo horietan egoteagatik eta horietara joateagatik konpentsazioaren kontzeptuari erantzuteko.

Foru lege proposamen honek orobat ezartzen du zer baldintza bete behar dituzten, soldata publiko bat jasotze aldera, erakunde-ordezkaritzako kargu baterako modu zuzenean hautatutako pertsonen edo erakundeak berak nahiz haren mende-ko organo batek zuzenean izendatutakoek, baldin eta eginkizun horiek dedikazio osoarekin nahiz partzialarekin betetzeagatik soldata bat jasotzen badute. Erakunde bat nahiz erakundeen menpeko entitate edo organo bat baino gehiagotan eginkizunak betetzeagatik soldata bat baino gehiago jaso ahal izateko bateraezintasuna ere arautzen da.

Foru lege proposamen honek, hirugarrenez, ezartzen du zein den eginkizun baterako izendatutako kargu publiko edo pertsona batek jaso dezakeen gehieneko diru-konpentsazioa, erakundeetatik sortu diren organoetan edo erakundeen menpeko entitateetan parte hartzeagatik edo kide izateagatik dietak direla-eta.

1. artikulua. Legearen esparrua.

Foru lege honen bidez arautzen da kargu publikoetarako hautatutako pertsonen edo izaera publikoko karguak edo eginkizunak betetze aldera erakundeek izendatutakoek soldata eta dietak jasotzea, baldin eta eginkizun horiek betetzeagatik diru-kopururen bat jasotzen badute.

Foru lege honen ondorioetarako, kargu publikoak dira hauteskunde prozesu batean zuzenean hautatuak izateagatik kontzejuetako, udaletako, mankomunitateetako, Parlamentuko edo gobernuetako kide diren pertsonak. Orobat barne hartzen ditu ordezkaritza edo kudeaketa karguak betetzen dituztenak, baldin eta arestian adierazitako erakundeetatik sortu den organoren baterako zuzenean hautatuak izan badira.

2. artikulua. Kargu publikoek eta eginkizun publikoetarako izendatutako pertsonen soldatak kobratzea.

Artikulu honen bidez arautzen da kargu publikoek soldatak jasotzea. Soldatatzat hartuko da:

1. Pertsona batek hilero eskuratzen duen diru-kopuru finko eta egonkorra, erakunde batean nahiz erakunde horretatik sortutako entitate batean hautatua izan den karguko eginkizunetarako duen dedikazio osoarengatik edo partzialarengatik.

2. Kargu publikoek edo izendapen zuzenekoek edozein erakunderengandik edo erakundeetatik sortutako entitateengandik eskuratutako diru-konpentsazio erregularra, soldatapekoak izan ez arren erakunde horretan duten kargutik eratorritako eginkizunak eta betebeharrak betetzeko lana eta dedikazioa konpentsatzeko ordainketa gisa jasotzen dutena.

A. Arestian adierazitako moduan, printzipio gisa ezartzen da kargu publiko bat edo bat baino gehiago dituen pertsona bakar batek soldata bat baino gehiago jaso ezin izanen duela.

Pertsona bakar batek soldata publiko bat baino gehiago jaso ezin izanen duelako printzipioak orobat ukitzen ditu Nafarroako erakunde bat baino gehiagotan, dela udala edo Parlamentua, kargu gisa hatatu diren pertsonak, edo Madrilen nahiz Europan eta aldi berean gure erkidegoko udalen batean dihardutenak. Pertsonaren batek soldata bakar bat jaso ahalko du baldin eta Nafarroako erakundeetako edozeinetan zuzeneko kargu publiko bat betetzeko hautatua izan bada eta enpresa publikoetan nahiz haien menpeko entitateetan soldatapeko eginkizunak betetzen baditu edo halako eginkizunak betetzeko izendatua izan bada. Nahiago duena hautatu beharko du.

B. Parlamenturako nahiz Parlamentutik sortutako organoetarako hautatutako karguek eta Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta lehendakariak jaso beharreko soldaten zenbatekoa ezartzearen ondorioetarako, indarrean dauden zenbatekoak ezartzen dira.

C. Udaletako karguen, zinegotzien eta alkateen soldatak ezartzeko, administrazioko A mailarako ezarritako oinarritzko soldataren zenbatekoa ezartzen da erreferentzia. Diru-kopuru horri toki entitatearen biztanle-kopuruaren arabera plus bat gehituko zaio.

Hona toki entitateetarako gehieneko soldaten taula:

1. 3.000 biztanlera bitarteko toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina izanen da gehienez ere, lanaldi erdiko gehieneko dedikazioarekin.

2. 3.000 eta 5.000 biztanle bitarteko toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina izanen da gehienez ere, dedikazio osoa izateko aukerarekin.

3. 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina izanen da gehienez ere, dedikazio osoa izateko aukerarekin.

4. 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina gehi horren % 20 izanen da gehienez ere, dedikazio osoa izateko aukerarekin.

5. 20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina gehi horren % 30 izanen da gehienez ere, dedikazio osoa izateko aukerarekin.

6. 50.000 biztanletik gorako toki entitateak: ordainsaria administrazioko A mailako soldata gordina gehi horren % 40 izanen da gehienez ere, dedikazio osoa izateko aukerarekin.

Udaletako kargu publikoek udalaren diru-konpentsazioa jaso ahalko dute baldin eta hautatuak izan diren udalean eginkizunak zuzenean betetzeko soldatapeko dedikazioa ez badute edo dedikazio hori partziala bada, baina konpentsazio horrek ezin izanen du gaudituz dagokien eskalarako ezarritako zenbatekoa, eta dedikazioaren arabera izanen da.

D. Udalez gaudiko entitateei eta mankomunitateei ere aplikatuko zaie soldata bakarraren printzipioa, baldin eta horietako kide diren udaletako kideen dedikazio osoa badute, eta hautua egin beharko dute hautatuak izan diren udalean jasotzen dutenaren eta udalez gaudiko entitatean jasotzen dutenaren artean.

Udalez gaudiko entitateetan edo mankomunitateetan dedikazio osoa edo partziala duten karguek jaso beharreko gehieneko diru-kopurua ezin izanen da izan horietako kide den udal handieneko soldatarengatik legokiekeena baino handiagoa.

3. artikulua. Dieten gehieneko zenbatekoa.

Artikulu honek ondokoak ukitzen ditu: erakunde eta administrazio publiko guztiak, haien menpeko organoak, enpresa publikoak eta partaidetza handiena publikoa duten enpresak, fundazioak eta erakundeetatik osorik nahiz partzialki sortutako entitate oro.

A. Dieta edo gisako kontzeptuengatik ezar daitkeen, edo ezarrita dagoen, gehieneko zenbatekoa ez da izan lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa.

Gehieneko zenbateko hori hileroko eta urtero ezarriko da, halako moduan non dieta edo gisako kontzeptuengatik jasotako diru-kopuruak ez baitu ez hilean ez urtean ere gaindituko lanbide arteko gutxieneko soldata.

B. Hona nola doitu beharko diren erakundeetan edo erakundeen menpeko entitateetan dieta edo gisako kontzeptuengatik ordaindu ahalko diren diru-kopuruak:

1. Dietak ezin izan dira lanbide arteko gutxieneko soldataren % 25etik goitikoak izan, baldin eta erakundearen ardurapeko eta zuzeneko kudeaketarako urteko aurrekontua 10 milioi eurokoa edo txikiagoa bada.

2. Dietak ezin izan dira lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50etik goitikoak izan, baldin eta erakundearen ardurapeko eta zuzeneko kudeaketarako urteko aurrekontua 10 milioi euro eta 100 milioi euro bitartekoa bada.

3. Dietak ezin izan dira lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik goitikoak izan, baldin eta erakundearen ardurapeko eta zuzeneko kudeaketarako urteko aurrekontua 100 milioi euro eta 500 milioi euro bitartekoa bada.

4. Dietak ezin izan dira lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak izan, baldin eta erakundearen ardurapeko eta zuzeneko kudeaketarako urteko aurrekontua 500 milioi eurotik goitiko bada.

Ez dira dietatzat hartuko garraio, ostatu edo mantentze kontzeptu gisa justifikatutako gastuak estaltze aldera jasotakoak.

4. artikulua. Gehieneko dietak.

Dieta edo gisakoak eskuratu ahal izatea ezarritzen da, bai eta diru-kopuru horien gehieneko zenbatekoa ere, ondotik ezarritakoari jarraikiz:

A. Nafarroako erakundeetako kargu publikoek edo horietan nahiz horien menpeko entitateetan izaera publikoko eginkizunak betetzeko izendatutako pertsonak ezin izan dute jaso dieta edo gisako bat baino gehiago, karguarengatik legezkoak diren eginkizunak betetzeagatik.

Irizpide hori bera aplikatuko zaie hauteskundeetatik sortutako erakunderen batek izendatutako pertsonari, nahiz eta hauteskundeetan zuzenean hautatuak izan ez, baldin eta entitate edo enpresa publikoetan edo partaidetza handiena publikoa dutenetan eginkizunak betetzeko edo horien ordezkari izateko hautatuak izan badira.

B. Dieta edo gisako kontzeptuengatik jaso ahalko den gehieneko diru-kopurua ezin izan da izan pertsona hori soldata gisa jasotzen ari den zenbateko gordinaren % 10 baino handiagoa.

C. Tributuen eta zergen ondorioetarako, ordain-sari eta diru-sarrera gehikuntzat hartuko dira dieta edo gisako kontzeptu modura jasotako diru-kopuru guztiak.

Xedapen indargabetzailea. Baliogabetu egin dira foru lege honen maila bereko zein beheragoko arau guztiak.

Xedapen iragankorra. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabeteko epean, administrazioko goi karguen estatusa eta bateraezintasunak arautzeko foru lege proiektu bat igorri beharko du.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Félix Garrido Zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpromisoa har dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Félix Garrido Zentroa 2012. urtean zehar irekitzeko konpromisoa har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, "Félix Garrido" zentroa irekitzea eskatzen duen mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

2010eko abenduaren 13an –astelehena–, Nafarroako Gobernuko orduko lehendakari Miguel Sanzek (UPN), orduko Gizarte Gaietako kontseilari Maribel García Malorekin eta herriko alkatearekin batera, "Félix Garrido" Egoitza-etxe eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa inauguratu zuen Sarrigurenen (Eguesibar), nahaste mental larria duten pertsonentzako.

Gizarte Gaietako Departamentuak berak justifikatu zuen orduan proposamena, esanez helburua zela nahaste mental larria duten pertsonen autonomia pertsonala eta soziala hobetzea eta haiek arian-arian gizarteratu ahal izatea eta normalizazio-baldintzarik eta bizi-kalitaterik onena izan

dezaten ahalbidetzea. Helburu laudagarri horrek beharizan bat izaten jarraitzen du, duela urtebete bezala, gaur egun ere.

Nafarroa 2012 Plana entzutetsuan kokatzen da azpiegitura, eta 4.485.506 euroko kostua ekarri zion Nafarroako Gobernuari. 26 gaixo hartu behar zituen, eta kopuru hori bikoiztera ere iritsi zitekeen, gela bakoitzean bi ohe egon baitaitezke. Errehabilitazio Psikosozialeko Zentro bat ere izan behar zuen, eta hartan 60 pertsona artatuko ziren eguneko ordutegian.

Urtebete igarota, Félix Garrido zentroa itxita dago oraindik ere, eta Gizarte Politikako Batzordeko kide garen foru parlamentarioek in situ egiaztatu ahal izan genuenez, UPNren Gobernuaren gizarte politika alorreko beste porrot bat da honako hau. Gaizki eta presaz inauguratuta, hauteskunderi begirako asmoz inondik ere, zentroa, gaur egun, Nafarroako Gobernuak babestutako zarrastelkeriari egindako beste monumentu bat da, foru erkidegoko geografian zehar erabilgaitz dagoen beste bat gehiago.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan "Félix Garrido" zentroa heldu den 2012an zehar irekitzeko eta behar adina material teknikorekin eta gizabaliabiderekkin hornitu dezan, nahaste mental larria duten gutxienez ere 26 gaixo bizi ahal izan daitezen bertan eta gisa bereko gaixotasuna duten 60 pertsonak parte hartu ahal izan dezaten eguneko lan-plangintza batean, haien bizi-kalitatea nahiz haien familiena hobetze aldera eta balizko gizarteratze bati begira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2012rako aurrekontuetan kontusail bat jaso dezan, gizarte politikako progra-

mak eta proiektuak jasaten ari diren bezalako murrizketak aplikatu gabe zentro horri.

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita euskaraz publizitate instituzional gehiago txerta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dezan.

Nafarroako Gobernuak 1986. urtean onartu zuen Euskararen Legean Gobernuaren betebeharrak zehazten dira. Horrela dio legeak bere III. tituluaren (komunikabide sozialak):

“27. artikulua. 1. Administrazio Publikoek sustatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

Horretarako komunikabideak euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatu dituzte.”

Euskararen presentzia komunikabideetan sustatzeko agindua ematen dio Euskararen Legeak Nafarroako Gobernuari. Euskararen presentziak aurrera egiteko laguntza ematera behartzen du, alegia. Legeak “gero eta gehiago eta ohiko moduan” erabil dezan laguntzeko agindu, eta Gobernuak gero eta laguntza gutxiago eman. Legeak dioena, eta Europako Kontseiluko Adituen Taldeko aholkuak beraz, ez dira betetzen ari.

Hau oso nabarmenki gertatzen da publizitate instituzional arloan. Orain dela gutxi informazio eskaera baten erantzunean ikus ahal izan genuen Diario de Noticias eta Diario de Navarra periodikotik euskararen presentzia txertatutako publizitate instituzionalean %1,86a zela. Ez dirudi modurik egokiena euskararen presentzia sustatzeko.

Hori dela eta, hurrengo proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du publizitate instituzional gehiago euskarazko hedabideetan txerta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du normalean publizitate instituzionala txertatzeko erabiltzen dituen hedabideetan euskara gehiagotan erabil dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnostiko oso bat egin dezan Nafarroan ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko plan bat ezarri aurretik.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita diagnostiko oso bat egin dezan Nafarroan ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko plan bat ezarri aurretik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2007an aurkeztu zion Gobernuari ikus-entzunez-

koen sektorea bultzatzeko plan bat. Gobernuak ez zion inolako erantzunik eman planari. Ondoren, parlamentuan zenbait ekimen aurkeztu dira sektore hori bultzatzeko, eta horietako batzuk onetsi egin dira. Azken, PSNk aurkeztua, 2011ko martxoaren 24an onetsi zen. Hartan, Nafarroako Gobernua premiatu zen Ikus-entzunezkoen Sektorea Dinamizatzeko eta Garatzeko Plan bat egin zezan. Aurtengo uztailean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak eta Nafarroako Informazioko eta Komunikazioko Teknologiaren alorreko Enpresen Elkarteak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, ikus-entzunezkoen sektorearen intereseko azterlanen, proiektuen edo ekimenen taxuera, garapena eta exekuzioa sustatzeko eta horiei dagokienez lankidetzan aritzeko. Kontuan hartuta Kontseilua desagertu dela eta Nafarroako Gobernua izanen dela Kontseiluak esleiturik zituen eginkizunez arduratuko dena, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diagnostiko oso bat egin dezan ikus-entzunezkoen sektorearen ahuleziak aurkitzeko, sendotasun-guneak bilatzeko eta jarduteko eremuak planteatzeko, Nafarroan ikus-entzunezkoen sektorea sustatzeko plan bat ezartzeko aurretiazko urrats gisa.

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Gobernuak premiatzen da giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan.

NAFARROA BAI ETA BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gobernuak premiatzen baita giza eskubide guztiak aktiboki defenda eta susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan urriaren 11n, ELEAK-eskubide sozial eta politikoen aldeko plataformako kideek agerraldia egin zuten Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean. NaBai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eskatu zuten agerraldia.

Lan bilera horretan, agerraldia egin zutenek Nafarroako gazte askok pairatzen duten egoeraz ohartarazi zuten, prozesatuta dauden sumarioak politikoak direlako, penalak baino gehiago.

ELEAK plataformako kideek bertatik bertara ezagutarazi ziguten zein egoeratan dauden salaketa larriak egin zaizkien gazte horiek. Gazte horiek aurrean dituzte, gazteen erakundeetan parte hartze hutsagatik, epaiketak eta espetxe-zigor eskaera neurrigabeak. Erakunde horiek lan politikoa egiten dute, eta hori da Auzitegi Nazionalen une honetan epaitzen ari direna.

Arestian azaldu dugun legez, gure asmoa ez da zigorgabetasunerako oinarriak ezartzea edo prozesatuen planteamendu ideologikoekin edo pertsonalekin bat egitea, baizik eta gizarte osoa-

ren hobe beharrez jardutea; izan ere, oinarritzko eskubide bat edo printzipio demokratiko bat urratzen denean, ukitutako pertsona baino harantzago doa epaiketa. Gizarte-ehun osoa kaltetzen du; bere erakundeak, bere baitako bizikidetasuna eta bere etorkizuna.

Testuinguru horretan, gazteriak bizi duen problematika egoera orokorraren parte bat da, gainditu nahi dugun eskubide-urraketen egoera orokorraren parte bat.

Hortaz, gure ustez beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuan erabaki-sorta bat hartzea, prozesu horien esparruan larriki urratzen ari diren eskubide indibidual nahiz kolektiboak babestera bideratuak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Konpromisoa har dezan giza eskubide guztiak modu aktiboan aldeztu eta sustatzeko, herritar guztien eskubide zibil eta politikoak barne.

2. Irekita jarraitzen duten sumarioen izaera eta helburu politikoa salatzea, eskubide indibidual eta kolektiboak urratzen dituztelako, hala nola bilera-eskubidea, helburu politikoein elkartzeko eskubidea eta adierazpen-eskubidea.

3. Jurisdikzio eta legeria bereziak –"terrorismoaren kontrakoak" bezala ezagutzen direnak– indargabetzearen alde agertzea; besteak beste, Auzitegi Nazionala.

4. Kontsideratzea jurisdikzio eta legeria berezien kontra nahiz horietan oinarrituta egindako epaiketen kontra agertzea normalizazio politikoren aldeko jarrera aktiboa hartzea dela.

5. Izapidetzen ari diren eta oraindik epaitu gabe dauden prozesu guztiak artxibatzea eta izaera ideologiko eta politiko hutseko gertakariak direla-eta emandako kondenak ezeztatzea.

6. Espainiako Gobernuari eskatzera helburu politiko edo sozialak erdiesteko erakundeetan libreki elkartzeko eskubidea ziurta dezan.

7. Dokumentu hau helaraztera Espainiako Gobernuari nahiz Espainiako gainontzeko instantzia politiko eta judicial ukituei.

8. Sumario horietan inplikaturako inputatu nafarrei bere babesa eta elkartasuna adieraztera.

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal eta Aitziber Sarasola Jaca

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita irizpideak batu ditzan eta etorkin sahararren dokumentuen izapidetzea erraztu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aski ezaguna da sahararrek kanpalekuetan bizi duten egoera, eta Parlamentu honek askotan adierazi dio bere elkartasuna Saharako herriari, hala adierazpen instituzionalak onetsita nola jardueretan parte hartuta.

Ez dugu hain ondo ezagutzen, berriz, emigrazioa erabakitzen duten sahararren egoera, zeina kanpalekuak mantentzen eta garatzen laguntzeko beste modu bat baita.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremantako Batzordearen urriaren 14ko lan bileran aukera izan genuen Carlos Bajori eta Haffed Brahim Labidi entzuteko zer-nolako zailtasunak dituzten etorkin sahararrek beren egoera erregularizatzeko. Azaldu ziguten nola aldatu den sahararren estatusa bi hamarkada baino gutxiagoko epe batean: kasurik egiten ez zitzairen nomada izatetik –non eta ez zen haien lurretako aberastasunaren ustiapena hitzartzeko– koloniako herritar izatera, bigarren mailako herritarrak izatera azken batean; zenbait pribilegio zituen eskubide osoko herritar izatera –teorian, penintsulako nazionalak baino eskubide gehiago–; hortik, salgai gisa tratatuak izatera igaro ziren, zeinekin kontzientziaren ausirik gabe ibil baitzitekeen salerosketan; saharar izatea “inor ez” izatea bihurtu zen, osagai zeharo ikusezina izatea, erakunde askoren begietan ezdeusa, apatrida bat. Tristeena da azken estatus hori, tamalgarriena, gaur egun arte mantendu dela hogeita hamar urtez; estatus horrek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 15. artikulua urratzen du, artikulua horrek aldarrikatzen baititu nazionalitate bat izateko eskubidea eta nazionalitatea arbitrarioki ez kentzeko eskubidea eta nazionalitatez aldatzeko eskubidea arbitrarioki ez kentzekoa. Azken eskubide hori Espainiako Konstituzioaren 11.2 artikuluan ere ageri da jasota, hartan ezartzen baita jatorriz espainiarra den inori ezin kenduko zaiola nazionalitatea.

Legelari askok jarri dute auzitan Saharako herriaren estatusari egun eragiten dioten arauen balioa.

Erkidego batzuetan, funtzionarioen edo agintarien informazioa eta sentsibilitatea direla medio, sahararrek erraztasunak dituzte. Erraztasun horiek hauxe besterik ez dira: onartu egiten zaizkie

Espainiako zigilua daramaten dokumentuak, horien bidez frogatzen baita eskatzailea koloniako gobernuaren mendean bizi izan zela eta, horrenbestez, espainiarra zela eta espainiarra izaten jarraitzeko eskubidea duela. Horiek dira erraztasunak, justiziatzat ere har baitaitezke. Bitxia da, baina kasu askotan, nazionalitatea izateko eskubidea eskatzeko prozesuan, funtzionarioek Espainiako dokumentuei berei baino garrantzi handiagoa ematen diete Polisarioaren edo SEAD-Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren paperei. Kritika nagusia irizpide irmo eta bateraturik ez egotean datza: inork ere ez daki zehatz-mehatz zeintzuk diren betekizunak –antza denez, halakorik ez dago–, eta erabakia kasuko funtzionarioaren edo epailearen erabakimenaren mende egon ohi da. Ez dago horri buruzko irizpide argi eta zehatzik, eta horren eraginez erabaki arbitrarioak hartzen dira sahararrek aurkezten dituzten dokumentuak onartzearen egokitasunari buruz. Harrigarria da orobat gaur egungo Atzerritarren Legeak ez jasotzea Sahara Mendebaldeko herritarrei dagokienez ez baldintza ez lotura berezirik, baina bai, ordea, latinoamerikarrei dagokienez (antzinako koloniatuak direnez gero), nahiz eta Latinoamerikako herri-

ek XIX. mendean lortu independentzia eta ez ziren sekula Espainiako probintziatzat hartu, eta Sahara Mendebaldea, aldiz, bai.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du irizpideak batera ditzan eta, printzipio horiek oinarri, dokumentuak izapidetzen utz diezaien etorkin sahararrei, haien egoera administratiboa erregulariza dezaten eta nazionalitatea lortu ahal izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan sahararren dokumentazioa izapidetzeaz arduratzen diren langileek prestakuntza eta sentsibilizazio handiena izan dezaten, halako moduan non haien nazionalitatea izapidetzeko premiagabeko eragozpenak desagertuko baitira.

Iruñean, 2011ko azaroaren 4an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tresna informatiko bat finantzatu eta gara dezan, toki korporazioek beren udal inbentarioak modu homogeneoan egin ahal ditzaten.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tresna informatiko bat finantzatu eta gara dezan, toki korporazioek beren udal inbentarioak modu homogeneoan egin ahal ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Comptos Ganberak toki korporazioei buruz egindako txosten gehienetan detektatzen eta nabarmentzen da udal ondasunen inbentario gaurkotuen falta.

Gabezia ia orokortu hori ikusita, eta kontuan hartuta korporazio gehieneko egoera ekonomikoa eta muga teknikoak, ematen du egokia dela Nafarroako Gobernuak berak egitea lehen urratsa haiei gaurkotze hori errazte aldera, gaurkotzea beharrezkoa bezain legez bete beharrezkoa baita.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tresna informatiko bat finantzazera eta garatzera egokien iritzitako informatikagarapeneko enpresa baten bidez –Animsaren bidez, esaterako–, toki korporazioei ahalbidetze

aldera modu homogeneo batez egin ahal izatea beren udal inbentarioak eta urteko mantentzea; tresna hori kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzateke.

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkio Abdullah Dermirbas politikari kurduari, pairatzen ari den egoera dela-eta, bere gaixotasunerako tratamendu egokia jaso ahal izan dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten dizkio Abdullah Dermirbasi, pairatzen ari den egoera zaila dela-eta, eta halaber bere nahiz adierazten du, hark pairatzen duen gaixotasunerako tratamendu egokia jaso ahal izatearen aldekoa, halako moduan non bere bitzta ez den arriskuan egonen.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez igor dezan adierazpen hau Turkiako erakunde eskudunetara, zeinei eskatzen baitie Abdullah Dermirbasen kasuan hartutako erabakia berrazter dezaten eta Turkiatik kanpora bidaiatzeko baimena eman diezaioten bere gaixotasuna tratatzeko.”

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikus-entzunezko produkziarako laguntzen banaketari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, ikus-entzunezko produkziarako laguntzen banaketari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Kulturara, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Zer irizpide baliatuko ditu Departamentuak ikus-entzunezkoen produkziarako laguntzak banatzerakoan?

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an.

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, frantseseko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, frantseseko atal elebidunetako ikasleek *Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera izateko arrazoiei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuo Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Frantseseko atal elebidunetako ikasleek DELF-*Diplôme d'Études en Langue Française* azterketetara aurkezteko aukera dute (diploma hori Frantziako Hezkuntza Ministerioak ematen du). Zergatik? Zergatik ez dira egiten Hizkuntza Eskola Ofizialetako probak?

Iruñean, 2011ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakiteko nork ordainduko duen AHTa dela-eta Estatuko Gobernuak bere gain hartu duen gehieneko kostuaren eta benetako kostuaren arteko aldea.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nork ordainduko duen AHTa dela-eta Estatuko Gobernuak bere gain hartu duen gehieneko kostuaren eta benetako kostuaren arteko aldea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, AHTri buruzko galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nork ordainduko du Estatuko Gobernuak bere gain hartutako gehieneko zenbatekoaren eta egiazko kostuaren arteko aldea?

2. Zein da balizko gehieneko gailurkostuaren estimazioa?

3. Zer produkzio-inbertsio gerta daitezke geldiarazirik baldin eta Nafarroako Gobernuak iragarritako kostua gaintzen bada?

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, 2008an MECSA enpresari AHTari buruz enkargatu zitzaion txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak noiz jaso zuen AHTri buruzko zenbait auziri buruz MECSA enpresari 2008an eskatutako txostena?

2. Nafarroako Gobernuak zer ekimen eta jarduketak abiarazi zituen txosten horretako ondorioak ezagutu ostean?

3. Zergatik ez da ezagutarazi txosten horren eduki osoa?

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, Iruñeko Nabarrera kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Nabarrera kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Iruñeko Nabarrera kaleko Rozalejoko Markesa jauregiaren gaur egungo egoerari, aurreikusi diren

jarduketei eta jauregi horren etorkizunari buruzko ondoko galderak egiten dizkio Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariari, idatziz erantzun ditzan:

Ondare historikoari eta artistikoari lotutako aurrekontuak birprogramatzean 2009ko apirilean "Rozalejoko Markesa Jauregia zaharberritzea" izeneko proiektua bertan behera utzi eta aurrekontu bereko (12.000.000 euro) beste batek ordeztu zuenetik, agerikoa da eraikin hori urtez urte pairatzen ari den narriadura, zeinari gehitu behar baitzaio eraikinaren aurri-egoerak azkenean ekar lezakeen arriskua.

Galderak:

1. Gaur egun eraikina aurri-egoeran dagoela esan daiteke?

2. Departamentuak jarduketaren bat aurreikusi al du eraikinaren kontserbazioari edo zaharberritzeari begira?

3. Nafarroako Gobernuak zer plan ditu eraikin horren etorkizuneko erabilerari begira?

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

